

DONOSTI'KO GOTZAIAREN AZKEN "PASTORALA" DALA-TA

Oiturik gagoz-ta ez gara bat be arritu. Setien'dar Joseba Mirena Donosti'ko Gotzai Jaunak zerbait esaten daun bakoitzean, zauriakka yartzen yakoz Españi'ko zakur guztiak. Eta bada dirudianez Españi'n zakurrik aski.

Ori ikustean, neri, Kixote Mantxatarraren berba jatorr gogora: "Zaunka **da gure** Santxo ? Aurrera goaztelaren adi-garri !"

Argi eta garbi gaitzesten dau Donosti'ko Gotzaiak terrorismoa, indarkeria: Indarkeri oro. Indarkeriak danak dira ba gaitzoak: Gure adiskideenak eta gure etsaienak. Danak.

Baiñan Españi'ko zakurrak ez dira pozik gelditu. Asarretu dira. Españi'koak eta baita emen Euzkadi'koak ere.

Zakur oientzat etsaien indarkeria gaitzoa ei da beti. Ota berri adiskideena; edo beintat, ez ain gaitoa.

Baiñan, lapurreta, besteren gauzei su ematea, albisteak atertzearren baituak oinazetan ipintzea, gaitzakeri aundiak dira beti. Ta zer esanik ez gizakume bai ilizea, norik bere burua babesteko bear-bearrezkoa danean izan ezik.

Indarkeriak, terrorismoak, ez dauala besthere gaitzea elburu on batera erooten, diño Donosti'ko Gotzai Jaunak. Ori, egia da. Egi aundia. Baiñan, noizbait elbururik one-nera erroango ba'leu ere, bardin izango litzake gaitzoa. Terrorismoa, indarkeria, berez eta beti da gaitzoa-ta.

Egi aundiak esan dauz Setien'dar Joseba Mirena Gotzaiak. Eta esan be, dotore esan dauz guztiak.

Alare, beti bezala, aurka irten yakoz Lasterriko alderdi politiko danak. Izugarriko gorrotze, batzuk, gure Psoetarrak adibidez, eta, zer esanik ez, Madrid'ko ABC eskubitar aski ertzakoi edo estremista.

Marrulari oiek danek ordea, garrantzi aundiko gauza-to bat sartu dabe: Setien ez dala politika-gizona; soiliki Gotzais dala, eta gotzai bat ez daitekeala politikariarik izegiten daben bezala mintzatu. Politikariarik, borrokalaria-riak dira. Gotzaisa, alderantziz. pake-gizona da, guztien Aita.

Politikarientzat, bere alderdikoak ez diran guztiak, etsaiak dira. Gotzai batek ordea, zuriak izan naiz balzazk izan, seme-alabak dauz bere elabarrutiko gizakume guz-tiak. Orregatik, aita batek bere umeei bezala izzegiten dauze guztiak: onei eta gaitsoi. Oso gaitsoak izango dira agian auetako batrak. Baiñan alatuaziti, semeak.

Ebangelioak surkezten dauskun seme galku aren aitak bezala, here seme galkuen salbamena gura dau Gotzaiak; ez, seme aien ondamera.

Bere ataldeenaren artzaisa da Gotzais. Eta nik, irakurle,

ondo ezagunak dauz, Ebangelioko Artzai Onaren senti-menak.

Ba, Artzai On ura bezala, ibilli da oraingo ontan Donosti'ko Gotzais.

"Pastoral" itzak, Elizaren izketan, "anima-zaintza" esan nai dau. Eskutitz pastoral edo "anima-zaintzako" bat ez da orr bat bezalako.

Orr bat, ure bateko arazo bat zuzentzeko ematen dan gauza da. Eta orrelako oarrak, eman dauz Donosti'ko Gotzaiak ETA'ren gaitzakeri nardagarriak gaitzesteko.

Anima-zaintzako eskutitz bat ordea, Elizaren dotriña erakutsiz, gaurko, biarke eta betirako idatzen dan doku-mentua da: ez jokiera bakar bati erantzina emateko haka-rrik, baizik eta orrelako jokiera guztiak zeruko argiz bein betirako argiturik izteko. Orregatik ez du gaitzilleen ize-nik eman bear; bestela gaitzille guztien izenak aiatatu bearke leukez ba, eta on eginkizun lizeegitosa gertutako litzako.

Ederto mintzatu da Donosti'ko Gotzai Jauna: sendo, tinko, baiñan gorrotorik gabe.

Politikariaren izketari beti nabari oi yako gorrotoaren dotzu sakarra. Gotzai baten iskerak ez dahe orrelako dei-furrik ekarri.

Gaur goizean, Abenduak 2, irratia guztiek zabaldu dabenez, espetxean baiturrik surkitzen diran ETA'ren buruzagirik aundietzako bik, ETA gaitzetuta ETA'k darablikian ilketa-jokuaren aurka berba gogorrak esan omen dabez. ETA'k burua galku omen dau. Jende-ilhezari agur eginda, iritxi omen da alkarrisketaren bidetik sartze-ko garia. Indarkeriak ez omen dau Euzkadi elburu onera eramango. Indarkeria utzita, politikaren bidez aai bear omen dau ETA'k gaur-gero lanean.

Pentsatu daitekeela dirudi, politikariari guztien orru txoro zikirik baltio eragimen aundilagosa izan dauka Donosti'ko Gotzai Jaunaren sentzuko iskeria zuzenak! Zorionak, Gotzai Jauna.

LATIEG'ITAR BIXENTE